

DESAGERTUEN SENIDEEK «EZ DUTE AHAZTEN»



Argentinako presidenteorde Victoria Villarruelek -goiko irudian, Javier Mileirekin batera- diktaduran parte hartutako militarrekin duen lotura aski ezaguna da, baita Mileiren Gobernuaren giza-terriaren aurkako krimenengatik zigortutako militarrei barkamena ematearen aldekoa dela ere. Uztailaren 11n, Libertad Avanza-ko sei diputatuk Ezeizako espetxean preso dauden errepreso-reak bisitatu zituzten; tartean, Alfredo Astiz. Bi-ziarteko bi kartzela zigor ditu Astizek, besteak beste, Maiatzeko Plazako Amen sortzaile izan ziren hiru emakumeren -Azucena Villaflor, Esther Ballestrino de Careaga eta Maria Ponce- eta bi moja frantsesen desagerpenengatik -Alice Domon eta Leonie Duket-. ESMAn torturatu os-tean, "heriotzaren hegaldi" batean, itsasora bo-ta zituzten. Libertad Avanzako diputatuen hitzetan, «ez dira errepreso-reak, baizik eta subertsio marxistaren kontrako borrokalariak».

Bisitak berak eta adierazpenek haserrea piz-tu dute, ez soilik Argentinan baita Frantzian ere. Argentinan Desagertutako Frantziarren Elkar-tearen izenean, Jean-Pierre Lhandek eta, Argen-tinan eta Txilen desagertutakoen familien abo-katuak, Sophie Thonon-Wesfreidek, bisita bera eta kondenak indargabetzeko saiakerak salatu dituzte, "Frantziak ez du ahazten" izenburuko gutun batean, 1994an, Frantziako orduko Atze-rri ministroak, Alain Juppek, Argentina bisitatu zuenean esandakoa gogoratuz. Emmanuel Ma-cronek gonbidatuta, Javier Milei Parisen egongo da Olinpiar Jokoen hasiera ekitaldian. Gogoratu beharra dago 1990eko martxoaren 16an Fran-tziako epaitegiek Astizi betiko kartzela zigorra ezarri ziotela bi mojen desagerpenengatik.

